

Haserre gaude. Nazkatuta gaudela esateaz nazkatuta .Erailketak zenbatu eta salatu behar izan ditugun beste urte bat izan delako amorratuta. Erasoak egunero ikusi eta jasan ditugulako sutan.

2003tik aurrera, datuak jasotzen hasi zirenetik, 121 emakume erailak izan dira Euskal Herrian. 121 emakume. 121 bizitza. 121 etorkizun. 121 amets baino gehiago. Emakume izateagatik erail dituzte, emakume izateagatik.

Baina gaurkoan ez dugu zenbakietan gelditu nahi. Ezagunak egiten zaizkizue izen hauek? Lourdes del Hoyo, Maialen Mazon, Maria Begoña, Zhen Jian, Mateo. Os suenan? ¿Las recordais? pues la primera fue asesinada hace 6 meses, y ya ni la recordamos. Porque hemos perdido la cuenta.

Lourdes del Hoyo, 50 urte, Orio. (Ainhoaren adina) Bikote harremana eten eta egun gutxitara parke batetako banku batean eserita zegoela bere bikote ohia zapata kutxa batekin hurbildu zitzaion. Zapata kutxatik zerbait atera eta erakustera zijoanean, eskopeta bat atera eta buruan egin zion tiro, herriko parke batean, arratsaldeko 17:20. A las 17:20 de la tarde en un parque del pueblo. Ondoren bere buruaz beste egin zuen. Lourdesek bi seme alaba zituen, 16 eta 20 urteko bi seme alaba. Lourdes tenía dos hijes, de 16 y 20 años. Amarik gabe geratu diren bi seme alaba. Eta ez gaixotasun baten ondorioz hil delako, gizon batek erail duelako baizik. ...

Maialen Mazon, 32 urte, Gasteiz. (Iruñe, Goizane, zuen adinekoa) apartahotel batean aurkitu zuten bere gorpua, alboan 3 urteko bere umea zuela. La niña de 3 años pasó horas al lado del cadáver de su madre. (3 urteko umea, Peruren adinekoa) Maialen haurdun zegoen, bikiez haurdun. Balentzian bizi zen eta bertan, indarkeria matxistaren arriskua neurtzeko irizpideak kontutan hartuta, «muturreko arriskuko» babesa ezarria zuen, Arabara heltzean ordea, babes hori txikitu zuten bizilekua sekretupekoa zelakoan. Ordu batzuetara bikotekide ohia atxilotu zuten. Honek ez zuen bere buruaz beste egin.

Maria Begoña, 89 urte, Bilbo. Hanketako minaren ondorioz etxetik irteten ez zen emakumea, leihotik begira egoten zen auzokoekin sozializatzen jarraitzeko. Bere etxean tarteka bizi zen 28 urteko ilobak hil zuen labanarekin. 89 urterekin osasun sistemak eta gizarteak albo batera utzitako gaixotasun mentala duen gazte bat zaintzeaz arduratu behar zena. Ia 90 urte eta oraindik zaitzen. Zaindua izan behar duzunean, zaintzen, hil arte zaintzen, eraila izan arte. Cuidando a los 90.

Zhen Jian, 47 urte, Iruñea. (Leireren adinekoa) Goizaldeko 9ak aldera bere bikoteak arma zuri batekin erail zuen taberna batean. Zhen-ek 3 seme alaba zituen eta hauen testigantzei esker, erahilketa matxista berretzi ahal izan zuten.

4 emakume, 6 umezurtz, eta 2 jaio aurretik erailak. Haurrak ere biktima zuzenak.

Mateo Apestegi, 7 urte, Lizarra. Amari min emateko, ama hil gabe hiltzeko (?) aitak hildako umea. Amari min emateko eraildako umea. Matar a tu propio hijo para hacer daño a su madre. Habéis estado alguna vez en el balcón de Pilatos? Egon al zarete inoiz Urbasako Pilatosen balkoian. Hurbildu al zarete amildegira? Gerra zibilean frankistek errepublikazaleak kamioietan bertara eraman eta kamioietatik ihes egiten uzten zituztenaren plantak egiten zituzten. Korrika hasten zirenean baina, tiroka hasi eta amildegirantza bideratzen zituzten. Irtenbide bakarra hori zelarik. Leku eder bezain beldurgarria. Beste behin ere belztu duten lekua. Oraingoan beste astakeria batekin. Bertatik bota baitzuek aitak semea. 200 metro baino gehiagoko amildegitik.

Solo para hacer daño a la madre. Ser capaz de matar a tu propio hijo, para hacer daño a su madre.

Insoportable.

Guk ez ditugu istorio hauek ahaztu nahi, no queremos que pasen a ser números, queremos que duelan. Ez dugu anestesiaturata bizi nahi, Palestinako sarraskia ikustera ohitzen ari garen bezala. Ez gara robotak eta mina sentitzen dugu, eta sentitu nahi dugu, bestela hau normalizatzeko arriskuan eroriko gara, eta hau ez da normala, hau gerra bat da. Eta biher ZU izan zaitezke, edo ni, porque tu marido también es muy simpático y muy normal cuando está de poteo en Gizarte, el Batzoki o Iberlanda.